PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA, LANEKO MEDIKUNTZAREN ESPEZIALITATEA KONTRATATZEKO KANPOKO PREBENTZIO ZERBITZU BATEN BIDEZ HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO LANGILEEN OSASUNAREN ZAINTZA AURRERA ERAMATEKO 2024-2025 ETA 2025-2026 IKASTURTEETAN.

ESPEDIENTEA: 001/24

1. HELBURUA

Baldintza-agiri honen helburua da kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin laneko medikuntzako (osasun-zaintzako) prebentzio-jarduerak kontratatzeko eskakizunak eta baldintza teknikoak ezartzea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean ezarritakoaren (eta ondoren izan dituen aldaketen eta garapen-arauen) eta honako errege-dekretu hauetan ezarritakoaren babespean: 39/1997 Errege Dekretua, urtarrilaren 17koa, Prebentzio Zerbitzuei buruzko Araudia onartzen duena, eta 843/2011 Errege Dekretua, ekainaren 17koa, prebentzio-zerbitzuen osasun-jarduera garatzeko baliabideak antolatzeari buruzko oinarrizko irizpideak ezartzen dituena. Izan ere, diziplina horiek ez ditu bere gain hartzen Haurreskolak Partzuergoko prebentzio-zerbitzuak.

Plegu honetako zehaztapen teknikoak zerbitzua emateko gutxienekotzat joko dira beti; horrek, halere, ez du esan nahi aurreikusita egon ez arren kontratatutako zerbitzuaren izaera eta xede berberak dituzten jarduerak egiteko muga direnik.

2. ZERBITZUAREN BALDINTZAK

Langile kopuruan aldaketak izan daitezke, pertsonen guztizko kopurua gehitu edo murriztearen ondorioz, kontuan izanik kontratazio berriak, postu-aldaketak, kontratuen amaiera, erretiroak, etab. Hala ere, horrek ez du ekarriko inola ere kontratuaren prezioa aldatzea, ezta osasun-azterketen mota guztietarako hitzartutako tarifenak ere. Baldintzen agiri hau idazteko unean, langileen kopurua 1.591 da.

Aurrekoa gorabehera eta gutxi gorabeherako datuak baino ez direnez, Haurreskolak Partzuergoak ez du inoiz zerbitzu kopuru jakin bat kontratatzeko konpromisoa hartuko, kontratuaren indarraldian langileek dituzten premien edota egiten dituzten eskaeren mende baitaude.

Horrek ez dio inondik inora ahalmenik emango esleipendun ateratzen den erakundeari (baldin eta igo, murriztu edo kendu egin bada) inolako kalte-ordainik erreklamatzeko edo eskaintzan ezarri duen prezioa aldatzeko.

Enpresa esleipendunari, bere jarduerari ekin aurretik, informazio osagarria emango zaio Haurreskolak Partzuergoko langileak zein arriskupean dauden jakin dezan.

Zerbitzugintza kontratuaren indarraldi osoan zehar luzatuko da.

3. ZERBITZUAREN EDUKIA

Esleipendunak euskara jakingo duen koordinatzaile bat izendatu beharko du, Haurreskolak Partzuergoarekin harremanetan jartzeko pertsona gisa. Hura arduratuko da kontratuaren xede den zerbitzugintzaren jardunak koordinatzeaz. Era berean, Haurreskolak Partzuergoaren zerbitzura telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat (e-maila) jarriko ditu.

Kanpoko prebentzio-zerbitzua lankidetzan arituko da Haurreskolak Partzuergoak eskatzen dituen jardun guztietan. Gutxienez hiru hilean behin bilerak egingo dira, egin beharreko jarduerak antolatzeko.

Haurreskolak Partzuergoko langileek parte hartu ahal izango dute, komenigarritzat jotzen badute, kanpoko prebentzio-zerbitzuak egiten dituen landa-lanetan.

Esleipendunak Haurreskolak Partzuergoaren eskura jarriko ditu izan ditzakeen argitalpenak eta dibulgazio-dokumentuak, prestakuntzakoak eta informaziokoak.

Kanpoko prebentzio-zerbitzuak gauzatzen dituen jardueren urteko memoria egingo du. Memoria hori Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari igorriko zaio kontratua amaitu baino hamabost egun natural lehenago.

Kontratua amaitzean, enpresa esleipendunak Haurreskolak Partzuergoko langileen osasun-zaintzari buruzko datuak helaraziko dizkio zerbitzu hori egin behar duen erakunde berriari; hori guztia, datuak babesteari buruzko indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz.

Esleipendunak erreserbatutzat tratatuko du Haurreskolak Partzuergoak kontratu honekin lotuta ematen dion informazio guztia, eta momentu oro abenduak 5eko 3/2019 Lege Organikoa, Izaera Pertsonaleko Datuak eta eskubide digitalen garantiari buruzkoa ezarritakoak jarraituz.

Esleipendunak bere esku izango ditu giza baliabide guztiak. Horiek beharrezko prestakuntza, espezialitatea, trebakuntza, dedikazioa eta kide kopurua izango dituzte, baita kontratuaren xede den espezialitatean egin beharreko jardueretan lan egiteko beharrezkoak diren baliabide materialak ere.

4. DATU PERTSONALEN BABESA

Erakunde lizitatzaileek emandako datu pertsonalak Haurreskolak Partzuergoak tratatuko ditu, tratamenduaren arduradun gisa. Otaola hiribidea, 29 20600 Eibar – Gipuzkoa, 943-821750 telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa: dpo dbo@haurreskolak.eus, lizitazio hau kudeatzeko, lizitatzaile nahiz esleipendunengandik datozen legezko jakinarazpenak eta argitalpenak barne, eta esleipendun izango den/diren enpresarekiko kontratu-harremanari eustea.

Horretarako legitimazioa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean ezarritako legezko betebeharrak betetzearen ondorio da. Interesdunek, hala dagokionean, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko, tratamendua mugatzeko eta datuak eramateko eskubideak balia ditzakete, baita banakako erabaki automatizatuen xede ez badira ere, tratatu beharreko datuei dagokienez. Horretarako, Haurreskolak Partzuergoari jakinarazpen bat bidali beharko diote, lehen adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan, NANaren edo pasaportearen edo identifikatzeko balio duen beste edozein

dokumenturen kopia erantsita. Gure pribatutasun-politika kontsulta dezakezu gure web-atarian: http://www.haurreskolak.eus /

Kasu honetan, osasun-zaintzako zerbitzua berezia denez datuak babesteko araudiaren aurrean, enpresa esleipendunak, tratamenduaren erantzulea(k) direnez, datu pertsonalak babesteko Espainiako eta Europako araudian ezarritako aurreikuspenak bete beharko ditu. Datu pertsonalak gordeko ditugu bildu ziren helbururako behar den denboran eta datuak ezabatzea eskatzen ez den bitartean. Behar den denboran eskatu ere, eta tratamendua mugatuta, gure legezko/kontratuko betebeharrak betetzeko soilik, eta/edo gure aldetik erantzukizunak preskribatzeko eta/edo lizitazio honen ondoriozko erreklamazioak egiteko edo defendatzeko aurreikusitako legezko epeetan.

5. OSASUN LAGUNTZAN EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA ETA HEDADURA

Enpresa esleipendunak jarraian adierazten diren prebentzio-zerbitzuei buruzko Araudiaren 37.3 artikuluan garatutako ekintzak gauzatuko ditu:

a) Langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko funtzioak garatzen dituzten prebentzio-zerbitzuek Laneko Medikuntzan espezialista den edo Enpresako medikuntzan diploma duen sendagile bat izan beharko dute, baita Osasun Laguntzaile Teknikari/Erizaintzako Unibertsitate Diplomadun bat ere, gaitasun teknikoa eta egiaztatutako prestakuntza eta gaitasuna duten beste osasun-profesional batzuek ere parte hartu ahal izango duten arren.

b) Osasunaren zaintzari dagokionez, osasun-jarduerak honako hauek hartu beharko ditu, Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legearen 22.artikuluan zehaztutako baldintzetan:

   1. Langileen hasierako osasun-ebaluazioa, lanean hasi ostean edo osasunari arriskuak eragin diezazkiokeen bestelako lanak ezarri ostean.
   2. Osasun arrazoiak direla eta lan egin gabe denbora luzez egon ondoren berriro lanean hasten diren langileen osasun-ebaluazioa, jatorria lanean ote duen jakiteko eta langileak babesteko jarduera egokia gomendatzeko.
   3. Aldian behin osasuna ikuskatzea.

c) Osasunaren zaintzak langile bakoitzari eragiten dien arrisku-faktoreen araberako protokolo espezifikoak edo bestelako bitartekoak beteko ditu. Osasun eta Kontsumo Ministerioak eta autonomia-erkidegoen, eskumena duten sozietate zientifikoei entzun ostean eta Osasunaren lege Orokorrean eragile sozialen partaidetzari dagokionez zehazten dena kontuan hartuta, kasu bakoitzerako aldizkotasuna eta eduki zehatzak zehaztuko dituzte.

   Osasun-azterketek, nolanahi ere, barne hartuko dute laneko historia klinikoa; bertan, anamnesiaren, esplorazio klinikoaren, kontrol biologikoaren eta lan-motak berekin dituen arriskuen araberako azterketa osagarrien datuez gain, lanpostuaren deskribapen zehatza, iraupena zenbatekoa den, lan-baldintzak aztertzean zein arrisku antzeman diren eta zein prebentzio-neurri hartu diren ere jasoko da.
   Era berean, aurreko lanpostuen, horietan dauden arriskuen eta horietako bakoitzerako egonaldiaren deskribapen bat jasoko da, horrelakorik izanez gero.

d) Prebentzio-zerbitzuko osasun-langileek langileen artean gertatzen diren gaixotasunen eta osasun-arrazoiek eragindako lanera ez etortzeen berri izan beharko dute gaixotasunaren edo lanera ez etorri izanaren arrazoiaren eta lantokietan egon daitezkeen osasun-arriskuen arteko harremanak identifikatu ahal izateko.

e) Laneko arriskuek hala eskatzen dutenean, lan-harremanak amaituta ere langileen osasun-egoera aldian-aldian zaintzeko eskubidea mantenduko da Osasun Sistema Nazionalaren bitartez.

f) Zerbitzuaren osasun arloko langileek langileen osasun-zaintzaren eta arriskuen ebaluazioaren emaitzak aztertu beharko dituzte irizpide epidemiologikoak erabiliz. Gainera, zerbitzua osatzen duten gainerako kideekin lankidetzan jardungo dute arrisku profesionalen eta osasunerako kalteen artean egon daitezkeen loturak aztertzeko, eta laneko ingurumena eta baldintzak hobetzera xedaturiko neurriak proposatzeko.

g) Prebentzio-zerbitzuko osasun-langileek aztertu eta baloratu beharko dituzte zer arrisku dituzten emakume haurdunek edo erditu berriek, adingabeek edota hainbat arriskuren aurrean bereziki sentiberak diren langileek. Arrisku horiek aintzat hartuta, neurri egokiak proposatuko dituzte.

h) Hala badagokio, lantokian dauden prebentzio-zerbitzuko osasun-langileek lehen sorospenak eta larrialdi-arreta eskaini beharko diete lantokian istripuak edo asaldurak jasaten dituzten langileei.

Espezialitate hori osorik garatuko du, bai osasun kolektiboaren zaintzari dagokionez, bai banakako osasunaren zaintzari dagokionez ere, eta langileak babesteko beharrezko aholkularitza emango du.

OSASUN KOLEKTIBOAREN ZAINTZA

- Osasunerako arriskuak aztertzea eta osasuna zaintzeko jarduera programatzea.

  Osasunerako arriskuak aztertzea, kontuan izanik:
  - Lanpostuak eta horiek dakartzaten arriskuak kontuan izanda, egin beharreko osasun-azterketak zehaztuko dira. Gainera, horiek nahitaezkoak ala ez diren zehaztuko da, baita nahitaezkotasun horren justifikazioa, aldizkakotasuna, egin beharreko proben mota, eta abar ere. Helburua da langileen ordezkariei ondoren kontsultatzea Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 22. eta 33. artikuluan ezarritako baldintzen inguruan.
  - Hurrenez hurreneko edo aldibereko eragiketen ondorioz larritu edo aldatu daitezkeen arriskuak.

  Zentro eta lanpostuetara bisita egitea.

  Esku-hartzeen urteroko plangintza.

- Berariazko arriskuak dituzten langileak prestatu eta informatzea, azpimarratuta haien osasun-alderdiak, haiek prestatzeko jardueren bidez. Kontratatzen diren kanpoko prebentzio-zerbitzuko osasun-langileek prestakuntza- eta hezkuntza-kanpainak egingo dituzte (osasunaren arloko prebentzioa eta sustapena), baita egin beharreko ekintza guztiak

ere, zentroetako arriskuen ebaluazioan, prebentzio-jardueraren plangintzan nahiz prebentzioaren esparruko beste azterlan eta jardun batzuetan oinarrituta.

- Zaintza epidemiologikoa: Osasun-zaintzaren eta arriskuei buruzko ebaluazioaren emaitzak aztertzea, irizpide epidemiologikoak kontuan hartuta eta gainerako prebentzio-baliabideekin lankidetzan arituta. Helburua da arrisku profesionalen mende egotearen eta osasunerako kalteen artean egon daitezkeen loturak aztertzea, eta laneko baldintzak eta ingurune hobetzera bideratutako neurriak proposatzea.

- Haurdun dauden edo erditu berri diren langileei, istripuak edo gaixotasunak izan dituzten langileei, arrisku jakin batzuekiko bereziki sentikorrak diren langileei eta abarri eragin diezaieketen arriskuak aztertzea eta baloratzea, eta prebentzio-neurri egokiak proposatzea.

- Kanpoko prebentzio-zerbitzuak, laneko medikuntzako prebentzioaren jardunean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

  - Osasun-zaintzarako berariazko programa.
  - Egindako osasun-azterketen zerrenda, eta horien emaitzak eta aplikatutako mediku-protokoloa.
  - Haurdunaldian dauden edo berriki erditu duten langileengan eta bereziki sentikorrak diren langileengan eragina izan dezaketen lanpostuen arriskuei buruzko txostena.
  - Azterketa epidemiologikoari buruzko txostena.
  - Osasunaren arloan egindako zaintza-jarduerei buruzko memoria.

- Osasuna zaintzeko edo indarrean dagoen legeriak eska dezakeen beste edozein lan.

BANAKAKO OSASUNAREN ZAINTZA

Haurreskolak Partzuergoko langile gehienak emakumezkoak direnez, egin beharreko mediku-azterketetan kontuan hartu beharko da genero-bereizketaren ikuspegia eta Haurreskolak Partzuergoko langileen berariazko beharretara egokituko dira.

Aldi berean, eta arau orokor gisa, mediku azterketak goizeko 7:45-9:15 ordutegi bitartean eta egun bakarrean egin beharko dira.

Osasun-azterketetan, gutxieneko edukitzat, honako atal hauek jorratu beharko dira:

a) Laneko historia klinikoa:
   - Datu pertsonalak: filiazioa, zentroa eta lanpostua, betetzen den lanpostuaren berezko arriskuak.
   - Aurreko lanak, denbora, arriskuak eta osasunerako kalteak.
   - Uneko lana, lanpostuaren arriskuak, antzinatasuna eta osasunerako kalteak.
   - Familia-aurrekariak.
   - Aurrekari pertsonalak.
   - Egungo historia (ohiturak, patologiak, tratamendu farmakologikoak, adimen-egoeraren balorazioa, alergiak, prebentzio-txertoak).

b) Miaketa orokorra:
   - Datu antropometrikoak: pisua, altuera, arteria-presioa eta pultsua.

- Miaketa fisiko orokorra: begiak, belarriak, sudurra, larruazala, lepoa, abdomena, toraxa, barrunbe orofaringeoa, lokomozio-aparatua, nerbio-sistema, berariazko sistema osteomuskularra (bizkarrezurra, eskumuturra/eskua, belauna).
- Miaketa osagarriak: elektrokardiograma, espirometria, audiometria, ikusmen-kontrola, dinamometria manuala, tonometria.

c) Kontrol biologikoa: gernu- eta odol-analisia. Analitikek (kasuak kasu, mediku-protokoloen arabera lanpostu jakin batzuetarako gehitu beharreko zehaztapenak kontuan hartu gabe) honako hau jaso beharko dute behinik behin:
   - Hemoglobina eta globuluen jalkitze-abiadura.
   - Odol-biokimika: kreatinina, glukosa, kolesterol totala, HDL eta LDL, triglizeridoak, azido urikoa, GOT, GPT eta GGT (entzima hepatikoak), burdina, ferritina, fosfatasa alkalinoa. 45 urtetik gorako gizonezkoei PSA egingo zaie.
   - Gernu-analisia: anormalak eta jalkinak.

d) Bestelako miaketak:
   - Mediku-azterketa egiten duten langile guztiei galdera sortak egitea. Bata ahotsean litezkeen arazoak (noduluak) antzemateko eta bestea egon litezkeen arazo osteomuskularrak antzemateko.

     Frogen ezaugarrien azalpen memorian bi galdetegi hauek aurrera eramateko erabiliko diren ereduak aurkeztu beharko dira.

Gutxieneko eduki horri gehitu egingo zaizkio osasuna zaintzeko dagozkion zaintza-protokoloen arabera aplikatzekoak diren berariazko parametro osagarriak eta miaketak.

Arriskuen eta egindako miaketen arabera, beharrezkoa izanez gero, txertoko eta jatorri psikolaboraletarako arretako berariazko probak/azterlanak egingo dira. Beren ezaugarriengatik mediku espezialisten balorazioak eta aholkularitza behar duten azterketa medikoak egingo dira.

Analisi bat egingo da beharrezkotzat hartzen diren txertoak hartu izanari buruz, honako errege-dekretu honen 8. artikuluko 3. puntuan ezarritakoaren arabera: 664/1997 Errege Dekretua, maiatzak 12koa, langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babestekoa. Txerto horiek jarri ahal izango dira beharrezkotzat edo gomendagarritzat jotzen diren kasuetan, osasun-langileen txostena jaso ondoren.

Jatorri psikolaborala duten arazoen arretarako, beharrezkoa izango da osasun-profesional baten esku-hartzea (Ergonomia eta psikosoziologia aplikatuko espezialitatea duen psikologoa). Berariazko osasun-azterketak egingo dira (azterketa psikologikoak), osasun-arrazoiak direla-eta lanpostura egokitzeko komenigarritasuna zehazteko.

Kontuan izanik lanpostuaren arriskuak eta egindako miaketak, lanpostu jakin baterako langilearen gaitasuna argi ez badago, esleipendun suertatzen den enpresak nahitaez egin beharko ditu, bere bitartekoen bidez edo kanpoko mediku edota profesionalen bitartez, beharrezkoak diren berariazko proba edo azterlan mediko osagarri eta gehigarriak egin beharko ditu. Hala, lanpostuan jarduteko mediku-gaitasuna eztabaidaezina eta zalantzarik gabea izango da, eta argi eta garbi jasota egongo da Haurreskolak Partzuergoan (adibidez, langilearen gaitasuna zehazteko, azterketa psikologikoak, psikiatrikoak edo beste mota batekoak behar izanez gero).

Bestalde, eta haurdunaldiko arriskuagatiko prestazioa tramitatzen duten emakume langileentzat, eta Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzutik egiten diren eskaerei jarraiki, arrisku biologikoak baloratuko dira horretarako balorazio serologikoak egingo direlarik hurrengoen inguruan: errubeola, elgorria, hazizurriak (parotiditisa), zoster-barizela, parvovirus b19 eta zitomegalobirusa.

Langileen osasunaren zaintza eta kontrola egitean, haien intimitate eta duintasun pertsonalerako eskubidea errespetatu beharko da eta haien osasun-egoerarekin lotutako edozein informazio isilpean gordeko da.

6. GEHIENEKO PREZIOAK

Mediku azterketa, azterketa psikologiko eta balorazio serologikoen gehienezko prezio unitarioak hurrengoak dira:

Kontzeptua	Gehieneko prez unitarioa (euroak)
Haurreskolak Partzuergoko pertsonalarentzat mediku azterketak	65
Haurreskolak Partzuergoko pertsonalarentzat azterketa psikologikoak	75
Balorazio serologikoak (errubeola, elgorria, parotiditisa, zoster-barizela, b19 parbobirusa eta zitomegalobirusa)	100

Oharra: mediku azterketak, azterketa psikologikoak eta balorazio serologikoak BEZ gabekoak dira, libre daude (Abenduak 18ko 37/1992 Legea BEZ-ari buruzkoa 20.1art.).

Osasunaren zaintzaren gestio eta administrazioaren gehienezko zenbatekoa hurrengoa da:

Kontzeptua	Gehienezko zenbateko (euroak, BEZ gabe)
Gestioa eta administrazioa (2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetarako)	20.000

7. BESTELAKO ZERBITZUAK. IGORRI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

a) Enpresak atari bat izan beharko du Interneten, erabiltzaileek kudeaketak egin eta sortutako informazioa eskuratu ahal izan dezaten, datuen konfidentzialtasuna errespetatuz. Atariak erabiltzaile mota desberdinentzat (langileak, prebentzio-zerbitzua, etab.) irisgarria izan behar du, eta, esleitutako profilaren arabera, honako hauek ahalbidetuko ditu: alde batetik, hitzorduak kudeatzea, txosten mediko indibidualak kontsultatzea eta deskargatzea, informazio-fitxak, etab., eta, bestetik, gaitasun-txostenak, balorazio medikoak, jarduera-memoriak, azterketa epidemiologikoak, estatistikak eta abar kontsultatu eta deskargatzea.

b) Mediku-azterketa bakoitzaren emaitzak zuzenean bidaliko zaizkio langile bakoitzari mediku txosten pertsonalizatu eta konfidentzialaren bidez, eta honek edukiko ditu mediku azterketan egindako frogak, historia klinikoa, berauen balorazioa egokitzat jotzen diren gomendioekin eta langilearen gaitasun kriterioa bere lanposturako dagozkion laneko prebentzio neurriekin. Aldiz, prebentzio alorrean funtzioak egoki

garatze aldera langilearen gaitasuna bere lanpostua burutzeko edo prebentzio eta protekzio neurriak sartu edo hobetzeko beharrarekin egindako mediku azterketetatik ondorioztatutako emaitzen txostena Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari bideratuko zaio. Laburbilduz, Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuari bidaliko zaizkio "Enpresarentzako Txostenak" langilea lanerako GAI, EZ GAI, GAI MUGEKIN eta abar den zehaztuz. Hori guztia aurreko atalean aipatutako Interneteko atariaren bidez egingo da.

Mediku azterketaren emaitza GAI bada Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuari jakinarazi beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean. Osasun-azterketaren emaitza EZ GAI edo GAI MUGEKIN bada, hori berehala jakinarazi beharko zaio Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari, gehienez ere 7 eguneko epean. MUGAPENAK DITUZTEN GAIEN kasuan, langileak lan egin duen lanpostuari datxezkion zereginen deskribapen xehatua egin beharko da, eta adierazi beharko da zeregin horietatik zein ezin diren bete, bere osasun-egoerari eragiten diolako, eta zer muga hartu behar diren kontuan lan horiek egitean, lanpostua egokitzeko. Idatzizko jakinarazpen mota horiek euskaraz egin beharko dira.

c) Azterketa psikologiko bakoitzaren emaitzak zuzenean bidaliko zaizkio langile bakoitzari mediku txosten pertsonalizatu eta konfidentzialaren bidez, eta honek edukiko ditu berauen balorazioa egokitzat jotzen diren gomendioak eta langilearen gaitasun kriterioa bere lanposturako dagozkion laneko prebentzio neurriekin. Aldiz, prebentzio alorrean funtzioak egoki garatze aldera langilearen gaitasuna bere lanpostua burutzeko edo prebentzio eta protekzio neurriak sartu edo hobetzeko beharrarekin egindako balorazioetatik ondorioztatutako emaitzen txostena Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari bideratuko zaio. Laburbilduz, Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuari bidaliko zaizkio "Enpresarentzako Txostenak" langilea lanerako GAI, EZ GAI, GAI MUGEKIN eta abar den zehaztuz. Hori guztia aurreko atalean aipatutako Interneteko atariaren bidez egingo da.

   Azterketa psikologikoaren emaitza GAI bada Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuari jakinarazi beharko zaio gehienez ere 15 eguneko epean. Azterketa psikologikoaren emaitza EZ GAI edo GAI MUGEKIN bada, hori berehala jakinarazi beharko zaio Haurreskolak Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari, gehienez ere 7 eguneko epean. MUGAPENAK DITUZTEN GAIEN kasuan, langileak lan egin duen lanpostuari datxezkion zereginen deskribapen xehatua egin beharko da, eta adierazi beharko da zeregin horietatik zein ezin diren bete, bere osasun-egoerari eragiten diolako, eta zer muga hartu behar diren kontuan lan horiek egitean, lanpostua egokitzeko. Idatzizko jakinarazpen mota horiek euskaraz egin beharko dira.

d) Balorazio serologikoen emaitzak zuzenean bidaliko zaizkiko langile bakoitzari, konkretuki, norbanakoak zehaztutako helbidera, mediku txosten pertsonalizatu eta konfidentzialaren bidez, eta honek edukiko ditu egindako frogen emaitzak.

e) Egindako osasun-jardueren zaintza-memoria: Bertan sartuko da egindako osasun-azterketen ondoriozko emaitzei buruzko azterlan estatistiko bat, lortutako emaitza estatistikoak eta jardueraren ondorioak (langileak bere lanposturako duen gaitasunarekin lotuta). Langileen osasunaren zaintza osatzen duten osasun-jarduera guztiak jaso beharko ditu.

   Osasun zaintzari dagokion memoria ikasturte bakoitzaren amaieran, alegia, 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturte amaieran, entregatuko zaio Haurreskolak

Partzuergoko Prebentzio Zerbitzuari. Nolanahi ere, zerbitzu horrek, kontratua gauzatzeko aldian zehar, enpresa esleipendunari eskatu ahal izango dio beharrezkotzat jotzen duen informazioa, eta enpresak informazio hori eman beharko du.

f) Memoria-txostena: mediku-azterketa bakoitzean langileek betetako galdera sortan oinarrituta, lanpostuan izan ditzaketen ahots-arazoen eta muskulu- eta eskeleto-asalduren inguruan. Aipatutako memoria-txostena egiteko erabiliko den ahots-arazoen galdera sorta eta muskulo-eskeleto asalduren galdera sorta Haurreskolak Partzuergoko prebentzio zerbitzuari aurkeztu beharko zaio "Frogen ezaugarrien azalpen memoria"-n C gutun-azalaren barruan.

g) Osasuna zaintzeko jardueren urteroko programa.

h) Osasun-arriskuen ebaluazioa. Langileen kolektiboan arazorik izan dezakeen eta, era berean, lanpostuetan dauden arriskuekin loturarik izan dezakeen osasun-arazoren bat antzemanez gero, dagokion berariazko azterlana egin beharko litzateke, neurri kolektiboei ekiteko. Halakoetan, ikerketa epidemiologikoko txosten bat egin beharko litzateke.

i) Denetariko aholkularitza osasun-arloan (langileen prestakuntza-beharrak eta laneko medikuntzaren alorreko informazioa) eta osasun-lehentasunen zehazpena.

j) Langile guztientzako osasun-laguntzako txartelak.

k) Idatzizko jakinarazpen eta txosten guztiak ele bietan egin beharko dira, euskaraz zein gazteleraz.